

BIZIKIDETZA PLANA II



IES KURTZEBARRI BHI

2017-2018

ELKARBIZITZA PLANA

| | |
|--|-------|
| 1. JUSTIFIKAZIOA. | 3. or |
| 2. BALORE ETA IRIZPIDE NAGUSIAK. | 4 |
| 3. HELBURU OROKORRAK. | 5 |
| 4. ELKARBIZITZA ARAUAK ETA ELKARBIZITZA KUDEATZEKO PROZEDURAK. | |
| 4.1. Ikastetxeko Arauak | 6 |
| 4.2. Arau-haustekak eta neurri zuzentzaileak | 8 |
| 4.3. Arau- hausteen aurrean jarraitzeko prozedura | 17 |
| 4.4. Elkarbizitza kudeatzeko prozedurak: | |
| 4.4.1. Prebentzio neurriak | 20 |
| 4.4.1.1. Harrera Plana | |
| 4.4.1.2. Tutoretza Plana | |
| 4.4.1.3. Aniztasunaren Trataera | |
| 4.4.2. Irakasleen jarrerak. | 21 |
| 4.4.3. Elkarbizitza batzordeak. | 23 |
| 4.4.4. Bitartekaritza. | 23 |
| 4.4.5. Familiekin konpromisoa | 24 |
| 4.4.6. Berdinen arteko Tratu Txarren aurrean | 24 |
| 5. ANTOLAKETA NEURRIAK. | 25 |
| 6. FORMAKUNTZA JARDUERAK. | 28 |
| 7. EBALUAZIOA. | 29 |

Elkarbizitzaren etengabeko ikerketa egin eta ondorioak helarazteko prozedura

1. JUSTIFIKAZIOA

Kurtzebarri BHI ikastetxeko zuzendaritzak, gure Hezkuntza Proiektuan zehazten den legez, ondorengo plana aurkezten du, hezkuntza komunitate osoak onartua, hezkuntza proiektuan txertatuko dena eta hurrengo ikasturteetan garatu eta abian jarriko dena.

Kurtzebarri BHIko Hezkuntza Proiektuan islatzen dira institutuak oinarritzat hartzen dituen printzipioak:

- Plurala izan nahi du, hau da, hezkuntzarako eskubidea guztientzat bermatzea nahi dugu.
- Hezkuntza integrala: Ikasleen nortasuna eta prestakuntza integrala askatasunez garatzen laguntzea, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten baloreetan oinarrituz.
- Eskola Euskalduna, gizartearen zerbitzura, ingurunean errotua.
- Demokratikoa.
- Hezkidetzaren bultzatzailea.
- Aniztasunaren integratzailea.
- Sormen gaitasunak eta izpiritu kritikoaren bultzatzailea.

Duela hiru urte hasi ginen Elkarbizitza proiektuarekin lanean, eskolako printzipioak gauzatzeko bide aproposa zela baloratu zelako: lortu nahi genituen helburuak errebisatzeko aukera, ikas komunitateko partaide guztien iritzia entzuteko bide antolatua eta guztiok adostutako elkarbizitzaren definiziotik abiatuta elkarlanean jarraitzeko.

Guztiok ados egon ginen elkarbizitza positiboak honako baldintzak bete behar zituela:

- Gure harremanak errespetuan oinarrituta egon behar dira eta ez debekuetan.
- Elkarbizitza ona mantentzeko guztion parte-hartzea bermatu behar da, gehiengoak onartu beharko dituen akordioak negoziatuz.
- Arauak eta konpromisoak onartu behar ditugu gustukoak ez izan arren, denon eskubideak errespetatzeko arau batzuk ezinbestekoak direla ulertzen dugulako.

- Eta arazoak sortzen direnean hitz eginez eta era baketsuan konpondu behar ditugu.

Institutuko egoera eta satisfazio maila eremu desberdinetan aztertu ondoren honako arloak hobetzen zentratu behar ginela ikusi zen: antolaketa mailan, metodologia mailan eta estamentu guztien parte hartzean.

2. BALORE ETA IRIZPIDE NAGUSIAK

Gure balore eta abiapuntuak honakoak dira:

- ⇒ Guztion arteko errespetua eta tolerantzia.
- ⇒ Zintzotasuna, egiazaletasuna.
- ⇒ Sentikortasuna.
- ⇒ Elkarbizitzarako denon ardura eta konpromisoa, adiskidetasunaz.
- ⇒ Ikasleak beren buruaren jabe, libre, arduratsu eta kritikoak nahi ditugu.
- ⇒ Gizarteko bidegabekeriez kontzientzia, elkartasuna garatuz.
- ⇒ Hezkuntza eginkizunean ikasleen parte hartze aktiboa.
- ⇒ Lanerako ohitura eta jakin-mina.
- ⇒ Euskara da gure komunikazio hizkuntza eta bere erabilera sustatuko da.
- ⇒ Euskal Herriko errealitate eta kulturarekiko arreta.
- ⇒ Beste kulturak ezagutzeko jarrera irekia.

Balore hauek lantzeko irizpide nagusi batzuk ditugu:

- ⇒ Baloreak biziz transmititzen dira, ez hainbeste hitzez. Horregatik irakasle onak gure baliabiderik eraginkorrenetakoa da.
- ⇒ Koherentzia behar dugu gure mezuak sinesgarriak izango badira. Ikasleak errespetatuak eta onartuak sentitu behar dira, haiei errespetua eta onarpena eskatu behar badiegu.
- ⇒ Arazoen aurrean ikuspegi hezitzailea hobetsiko dugu, gure irakasle funtzioarekin bat datorrena: ikasleak heziz doaz eta gure laguntza behar dute gogoetan egiteko, konpromisoak hartzeko, erabakiak hartzeko,...
- ⇒ Jarrera zabala behar da beste pertsona, bera dagoen lekutik eta bizi duen errealitatetik dituen kezka eta beharrak ulertzeko. Enpatia derrigorrezkoa dugu elkarbizitzaren inguruko erabakiak hartzeko.

Prozedura desberdinekin bultzatuko dugu parte hartzea eta konpromisoa, ikastetxea guztiok propio sentitzeko eta inplikazio eraginkor positiboa bideratzeko:

- Elkarbizitza gestionatzeko guztion partaidetza da lehen urratsa, guztion borondatean oinarritzen baita, neurri handi batean, elkarrekiko hartu-emanaren estiloa.
- Institutua ikasleak hezteko esparrua da, bai ikasgaietako eguneroko lanean, baita beste jarduera eta harremanetan ere. Garrantzitsua da ikasleak institutuan garapen pertsonal eta sozialerako bideak aurkitzea, eta horretarako beren parte hartzea beharrezkoa da.
- Komunikazio esparruak eta zubiak funtsezkoak dira elkarbizitzaren gora-beheretan esku hartzea izateko. Guztiok eduki behar ditugu bideak kritikak egiteko, proposamenak bideratzeko... Komunikazio esparru hauek egonkortasuna behar dute, ohitura bihurtzea garrantzitsua da. Esparru hauek formalak eta ez-formalak izan daitezke.
- Arazoak eta tirabirak egongo direla dakigunez, arazoen muinaz gain, arazo hori bideratzeko prozedurak landuko ditugu bereziki, jarrera eta portaeretan eragin nahi badugu. Arazoei nola egiten diegun aurre horrek definituko du gure jardun pedagogikoa, ez hainbeste arazo horien edukiak.

3. HELBURU OROKORRAK

Hurrengo lau urterako

honako helburuak ditugu:

- Elkarbizitza Behatokia martxan jarri.
- Ikasle eta irakasleen arteko parte hartzea sustatzeko martxan jarri ditugun mekanismoak sendotu .
- Gurasoen eta langile ez-irakasleen parte hartzea sustatu.
- Kurtso hasieran Harrera Jarduerak elkar ezagutzeko eta urteko elkarbizitza plana estamentu guztietan zabaltzeko:
 - Klaustroan.

- Ikasleekin Tutoretza ordutegi bereziak antolatuz.
- Gurasoekin mailaka bilerak egin
- Langile ez irakasleekin bilera.
- Kurtsoan zehar elkarbizitzaren jarraipena egiteko bideak ziurtatu:
 - Elkarbizitza Behatokia: estamentu guztiengandik proposamenak, egonezin eta iradokizunak jaso eta bideratu; komunitatea sentsibilizatu, girotu,... (ikasle-irakasle-guraso-langile ez irakasle).
 - Mailako irakasleen bilerak (irakasle-irakasle).
 - Elkarbizitzaren Batzordeak (ikasle-irakasle).
 - Tutoretzak: ikasleekin (ikasle-ikasle, tutorearen gidarekin) eta gurasoekin (ebaluazioetan eta behar den bakoitzean) (guraso-irakasle).
 - Langile ez irakasleekin koordinazio bilerak (langile ez irakasle-irakasle/Zuzendaritza).

4. ELKARBIZITZA ARAUAK ETA ELKARBIZITZA KUDEATZEKO PROZEDURAK

4.1. IKASTETXEKO ELKARBIZITZA ARAUAK

• OINARRIZKO ARAUAK GELAN:

- Puntuala izan
- Behar den materiala ekarri
- Irakaslearen instrukzioak jarraitu
- Eskola-komunitateko edozein kideri errespetua gorde
- Norberaren edo besteen integritatea arriskuan jar dezaketen jokabideak ekiditu
- Ez moztu klaseko martxa garrasi, zarata... eta abarreko jokabideekin.
- Iritzia emateko, jaikitzeo,..., baimena eskatu.
- Gela garbia mantendu

- Materiala zaindu (norberarena eta besteena)
- . Ezin dira dispositiboak (mugikorra, smartphone, ...) erabili. Salbuespen moduan telefono mugikorra edo eta antzeko funtzio dituen edozein gailu erabili ahal izango da ekintza didaktiko-pedagogikoak burutzeko , baina beti irakasleriak antolatu baditu edo beraien baimena badute
- Ezin da jan, edan...

● OINARRIZKO ARAUAK KLASE ALDAKETETAN:

- Ahal den neurrian, gela barruan itxaron irakasleari eta klase aldaketa lehenbailehen burutuko da. Beste gela batera joan behar direnean lasai, garrasi eta zaratak atera gabe joan.
- Irakaslea agertzen ez bada gela barruan itxaron Zaintzako irakasleari, horrela ez ditugu molestatuko gainontzeko geletan klasea ematen ari direnei. Ordezkaria irakasle-gelara joango da abisua ematera.
- Bainura joateko irakasleari baimena eskatu.
- Eskola-komunitateko edozein kideri errespetua gorde eta irakasleen, atezainen esana errespetatu eta jarraitu.

● OINARRIZKO ARAUAK ATSEDENALDIETAN:

- Patiora irten behar da, ezin da gelan edo pasilloetan geratu
- Ikasleak eskola esparruan geratu behar dira, ezin dira irten baimenik gabe. Salbuespena: 3. eta 4. DBHko ikasleak gurasoen baimenarekin.
- Patio eta gainerako instalakuntzak garbi mantendu, zaborrak lurrera bota barik.
- Erabilitako materialak (baloia...) jaso eta bere lekura itzuli

- Eskola-komunitateko edozein kideri errespetua gorde eta irakasle, atezain edota zaintzaileen esana errespetatu eta jarraitu.
- Mobila, mp3, mp4,... ezin dira erabili.

- **OINARRIZKO ARAUAK EKINTZA OSAGARRIETAN:**

- Irakasleen eta ekintza osagarriko monitoreen aginduak bete
- Errespetua gorde hitzez zein jokabidez (ikaskide, irakasle, monitore...)
- Ezin dira dispositiboak (mugikorra, smartphone, ...) erabili. Salbuespen moduan telefono mugikorra edo eta antzeko funtzio dituen edozein gailu erabili ahal izango da ekintza didaktiko-pedagogikoak burutzeko , baina beti irakasleriak antolatu baditu edo beraien baimena badute

- **OINARRIZKO ARAUAK JANTOKIAN ETA GARRAIOAN**

- Eskola-komunitateko edozein kideri errespetua gorde(hitzez zein jokabidez) eta irakasle, edota zaintzaileen esana bete.
- Garraioa ikastetxeko beste eremu bat da, eta bertan ere institutuko arautegia aplikatuko da.

4.2. ARAU-HAUSTEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

(Ikusi ondorengo TAULAK: JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK – HAUEK ZUZENTZEKO NEURRIAK ETA PROZEDURAK)

| JOKABIDE DESEGOKIAK | JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA |
|---|--|
| <p>a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak</p> <p>b) Eskolara edo eskola-jarduera osagarrietara justifikatu gabe ez bertaratzea.</p> | <p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari(kopia bat emanez) komunikatuko dio. Beste kopia Ikasketa Buruak sinatuta jaso beharko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Abisua eman araua gogoratzeko • Jolasaldian gelditu, galdu duen denbora errekueratzeko eta lanak egiteko. • Hurrengoan, gurasoei jakinarazi (agenda, telefono, eranskina erabili...) • Ikastetxeko sarrera orduetan, 3 aldiz berandu etorrita (eranskina bete eta hurrengo patio orduetan ikastetxean gelditu hausnarketa egiten. |
| <p>c) Ikastetxeko instalazioei, Ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, betiere zabarkeriaz gertatu bada.</p> <p>c) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka</p> <p>* Adibide zehatz batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Mahaietan marrak egitea edo margotzea. ➤ Paperak lurrera botatzea (ikastetxe barruan edo patioetan). ➤ Erabilpen desegokiagatik ikasgeletako materialen haustura ez larriak. ➤ Beste ikasle baten materialen hondaketa ez larria, eta erabilpen desegokia. ➤ Jangelan janariarekin jolastea (ogia bota..) ➤ Ikastetxe barruan pilotak, baloiak e.a. ekin jolastea. | <p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari(kopia bat emanez) komunikatuko dio. Beste kopia Ikasketa Buruak sinatuta jaso beharko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko ohartarazpenaz gain, kasuaren arabera ikasleak honako lan hauek bete beharko ditu errekreio garaian edo klaseak bukatutakoan: • Botatakoa edo zikindutakoa jaso, garbitu. • Gelako mahaiak garbitu, gela txukundu. • Ikastetxeko eremu bateko paperak bildu. • Hondatutako materiala ordezkatu. • Jangela txukuntzen lagundu. |
| <p>d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, <u>betiere haiek mespretxatzen, iraintzen edo nahita diziiplina hausten ez badu</u> ikasleak; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Irakasleak emandako agindu zuzena ez betetzea. ➤ Irakasle ez den ikastetxeko pertsonalaren agindu zuzena ez betetzea. ➤ Ikaslea dagokion esparrutik irtetea baimenik gabe ➤ Irakaslearen azalpenak moztea. ➤ Klase orduan eta saio artean jolasean aritzea. ➤ Klaserako beharrezkoa den materiala ez ekartzea. ➤ Lantzen ari den lanarekin zerikusia ez duen beste lan bat egiten aritzea. ➤ Gelako beste ikasleen arreta oztopatzea ➤ Irakaslearen mahaja eta eserlekua ez errespetatzea. | <p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari(kopia bat emanez) komunikatuko dio. Beste kopia Ikasketa Buruak sinatuta jaso beharko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Klasea eten eta araua gogorarazi • Atentzioa deitu ikasleari (begirada, keinu, ahoz) • 5 minutu kaleratu hausnarketa egin dezan. • Hurrengo saiorako azalpen bat prestatu eta irakaslearekin hitz egin • Klase orduetatik kanpo (arratsaldean, jolas garaian...) lanak egiten gelditu. • Errepikatzen bada gurasoei jakinarazi 9 (konpromisoa) |

| | |
|---|---|
| <p>e) Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezeko jarrera, keinu edo hitzak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Beste ikasleen lanaren gutxieste errepikatu gabeak. ➤ Beste ikasleak iraintze errepikatu gabeak. ➤ Jangelan jokaera desegokia izatea (Garrasika hitz-egin, dagokion tokian eserita ez egotea, baimenik gabe jangelatik irtetea) ➤ Jolasetan garbi ez jokatzea (ad. Futbol partidu batean zankadila, ukondokada, ...) ➤ Elkarri zuzentzerakoan hitz desegokiak erabiltzea | <p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari(kopia bat emanez) komunikatuko dio. Beste kopia Ikasketa Buruak sinatuta jaso beharko du</p> <ul style="list-style-type: none"> • Atentzioa deitu eta araua gogoraraziz gain: • Barkamena eskatu izandako jokaerarengatik • Modu egoki baten adierazi • Larritasunaren arabera patio garai batean zigorra: Hiztegian bilatu hitz desegokiaren esanahia eta hausnarketa |
| <p>f) Gobernu Organoak, bere eskumenean, debekatu dituen ekipoak, materialak , jantziak edo aparatuak ikastetxera ekartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ MP3a, Telefonoa, NDS eta antzeko makinak eskolara ekartzea. ➤ . Ezin dira dispositiboak (mugikorra, smartphone, ...) erabili. Salbuespen moduan telefono mugikorra edo eta antzeko funtzio dituen edozein gailu erabili ahal izango da ekintza didaktiko-pedagogikoak burutzeko , baina beti irakasleriak antolatu baditu edo beraien baimena badute | <p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari(kopia bat emanez) komunikatuko dio. Beste kopia Ikasketa Buruak sinatuta jaso beharko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Telefonoa, Mp3... kendu eta idazkaritzan gordeko da gurasoak jasotzera etorri arte. |
| <p>g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.</p> | <p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari(kopia bat emanez) komunikatuko dio. Beste kopia Ikasketa Buruak sinatuta jaso beharko du.</p> |
| <p>h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa. • Kaltetuta geratu diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea. • Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea. • Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea. |

Hezkuntza-neurri zuzentzaileak ezartzerakoan kontuan hartzeko, Kasu guztietan:

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa bultzatu
- b) Egindakoarekin lotuta
- c) Proporzionatua
- d) Pertsonari hazten laguntzen diotenak
- e) Mindutakoarekiko enpatia bultzatzen dutenak
- f) Beraiek(ikasleek) proposatuak (Nola uste duzu konpondu daitekeela hori?)
- g) Inplikatuaren arteko komunikazioa ahalbideratzen dutenak
- e) Mina jaso duena erreparatzen dutenak

| BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK | ARDURADUNA,PROZEDURA ETA ONDORIOA |
|--|--|
| <p>a) Ikastetxeko kide bakarreko aginte- organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Gelakideak ados jartzea eskola jarduera bat oztopatzeko. ➤ Irakasleak agindutakoa ez betetzeaz gain gelakideak gauza bera egitera bultzatzea. ➤ Kanpo ekintzetan jarrera desegokia izatea ekintza oztopatzeko asmoz. ➤ Gelakideak kanpo ekintza batean parte ez hartzera bultzatzea. | <p>Ikaslearen jokabidearen lekuko izan den irakasle edo agintari akademikoak idatzizko txostena emango dio ikaslearen tutoreari eta zuzendaritzari gertatutakoa azalduz Tutoreak eta zuzendaritzak ahozko zentzarazpena egin ondoren hauetako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. b) Kargu-hartze idatzia. c) Gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean kargu hartzea. d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko. |

| | |
|---|---|
| <p>b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Min egiteko, barregarri uzteko edo baztertzeko asmoz egindako irain edo laidoak. Eraso psikologikoak. ➤ Ahulago edo gazteago den norbaiti egindako irain edo laido larriak ➤ Min egiteko, barregarri uzteko edo baztertzeko asmoz egindako irain edo laidoak. Eraso psikologikoak. ➤ Ahulago edo gazteago den norbaiti egindako irain edo laido larriak ➤ Ikasle bat arinki jotzea. ➤ Ikasle bati bultza edo kolpe bat ematea. (adibidez gelara sartzerakoan edo eskailera igo edo jaisterakoan,...) | <p>e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.</p> <p>f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo legezko-ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.</p> <p>g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.</p> <p>h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea</p> |
|---|---|

| | |
|--|---|
| <p>c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.</p> <p>d) Noten buletina edo guraso edo legezko ordezkarietara igorritako beste edozein dokumentu edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeen dagokionez, buletin edo idazki horiek hartzaileei ez ematea edo hartzaileen erantzunak aldatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Azterketak lapurtzea ➤ Notak faltsifikatzea ➤ Etxeko ziurtagiriak faltsifikatzea ➤ Ikastetxeko aplikazio informatikoan aldaketak egiteko sartzea | <p>etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.</p> <p>i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin behar du ikasleak.</p> |
|--|---|



KURTZEBARRI
BHI

| | |
|---|---|
| <p>e) Nahita edo bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei kalteak eragitea, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Geletako materialetan kalte arinak (arbela, mahaiak aulkiak, gortinak, apalak e.a.)➤ Erasoak helduen jabego materialei➤ Lapurretak | <p>g), h) eta i) idatzi-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izango dira, soilik, a-f idatzi-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.</p> |
| <p>f) Ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.</p> | |
| <p>g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, alde aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, esanbidez baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.</p> | |
| <p>h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria fisikorik erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik gabe.</p> | |
| <p>i) Autobusean edo eskola-jantokian ordena era larrian aztoratzen duten portaerak, banakakoak edo talde mailakoak, bizikidetzarako oso portaera larria ez diren kasuetan</p> | |
| <p>j) Arriskua sortzea, lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzia-gabekeriaz erabiliz.</p> | |
| <p>k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutitzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.</p> | |

| | |
|---|--|
| <p>l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere : jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fiskoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.</p> | |
| <p>m) Jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaie. (Hau aplikatu ahal izateko idatzita jasota eduki beharko da alde aurretik neurri zuzentzaileak aplikatu direla, eta ikasleak adingabeak badira, baita haien gurasoei edo legezko ordezkariari neurri horiek aplikatu izana jakinarazi zaiela ere)</p> | |
| <p>n) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.</p> | |

| BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK | ARDURADUNA,PROZEDURA ETA ONDORIOA |
|---|---|
| <p>a) Ikastetxeko gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplina egintza edo obediencia ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne. Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laido garri edo iraingarriak edozein modura adierazita ere : ahoz, idatziz edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.</p> | <p>Ikaslearen jokabidearen lekuko izan den irakasle edo agintari akademikoak idatzizko txostena emango dio ikaslearen tutoreari eta zuzendaritzari gertatutakoa azalduz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuzendariak "Ikastetxearen bizikidetzaren aurkako jokabideak" zuzentzeko neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu eta horiez gain honako hauetako edozein: <p>a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo , hala badagokio ,</p> |

| | |
|--|--|
| <p>b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik : jaiotza, adina, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera....</p> | <p>eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.</p> |
| <p>c) Jazarpen sexista, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta.</p> | <p>b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetatik hogeira bitartean,. Horren ondorioz ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.</p> |
| <p>d) Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisikoa, lesio eragiteko arrisku larri sortzen bada.</p> | <p>c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetatik hogeira bitartean , eta adierazten zaizkion prestakuntza-jarduerak egiteko obligazioa, dagokien irakasleen kontrolpean.</p> |
| <p>e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokoerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea bultzatzea.</p> | <p>d) Eskolaz kanpoko jardueretan eta ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea.</p> |
| <p>f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idatziz, ikus.entzunezko edo baliabide informatikoen bidez ; baita eskola jazarpeneko jokabideak ere.</p> | <p>b), c) eta d) neurriak aplikatuko dira baldin eta a) neurria aplikatutakoan bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.</p> |
| <p>g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.</p> | <p>Ikasleari ikasturte berean behin baino gehiagotan ezarri bazaizkio ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko neurriak (m jokabidea ezik), Zuzendariak ikaslearen matrikula beste ikastetxe batera lekuz aldatzea proposatu ahal izango dio Hezkuntza Administrazioari.</p> |
| <p>h) Kalteak eragitea ikastetxeko instalazioei edo ondasunei, baita bertako langileen, beste ikasleen edo hirugarrenen ondasunei.</p> | <p>Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabideak eskola-jazarpeneko egoera sortzen badu edo hari eustea badakar, edo jokabide hori ikastetxeko irakasleren bati eraso egitea bada, lekualdatze hori zuzenean proposatu ahal izango da, ikasleari alde aurretik neurri zuzentzaileak ezarri ez bazaio ere. Gainera gauza bera egin ahal izango da hezkuntza komunitateko beste edozein kideri eraso fisiko bereziki larria egiten zaionean.</p> |
| <p>i) Ordena nahasteko jokabideak eragitea autobusean edo eskola-jangelan, edo jokabide horietan parte hartzea, arrisku egoeraren bat sortzen bada eskola-elkarteko edozeinentzat.</p> | |



KURTZEBARRI
BHI

| | |
|---|--|
| j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea. | |
| k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea. | |
| l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere. | |
| m) Delitu edo hutsegite penala den edozein egintza, nahita egin bada. | |
| n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz izatea "Ikastetxearen bizikidetzaren aurkako jokabidea", betiere aurreko biak zuzendu badira eta gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie. | |
| o) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubide hauen aurkako bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea. | |

4.3. ARAU HAUSTEEN AURREAN JARRAITZEKO BIDEA

- Edozein jokabideren aurrean irakasleak ardura hartu behar du:
 1. Bere aurrean gertatutako jokabidea baloratu behar du, hau da, desegokia den, bizikidetzaren aurkakoa,...
 2. Ikaslea ohartarazi behar du (konturatzeko portaera hori ez dela onargarria eta zergatik)

- Jarraitu beharreko pausuak jokabide motaren arabera:

JOKABIDE DESEGOKIEN AURREAN

1. Ikaslea ahoz ohartarazi.
2. Neurri zuzentzailea momentuan ezarri.(ikusitu aurreko puntua)
3. Jokabidea errepikatzen bada edota, kasuaren arabera, idatziz jaso (jokabide desegokiak ohartarazteko eranskina Irakasle gelan eskuragarri egongo da):
 - Horrela jakinarazita geratzen da; hiru aldiz errepikatu ezkerro, jokabide desegoki hori bizikidetzaren aurkakoa bihurtu daiteke.
 - Eranskin horren kopia bat Ikasketa Buruak sinatuta jaso behar du; beste bat, tutorearentzat izango da; eta originala, irakasleak etxetik sinatuta ekartzen duenean irakasleak gordeko du ikasturte amaiera-arte.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN AURREAN

1. Zuzendariari berria eman (idatziz) 24 orduren barruan (eranskinen kopia irakasle gelan daude)
2. Hemendik aurrera Zuzendariak prozesuaren ardura hartuko du.
3. Irakasleok prozedura errazteko, argibideak emateko eta Zuzendariari laguntzeko prest geratuko gara.

ZUZENDARITZAN JARRITAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK BIDERATZEKO MODUA

1. Gurasoentzako eskutitza, zuzendariak prestatuko du. Bertan zitaren ordua eta lekua zehazteaz gain, gertatu denaren berri aipatu egingo da.
2. Bilera hori, zuzendariak bideratuko du, eta berarekin batera ikasleak sortutako jarrera edo ekintzetan zer ikusirik izan duen edozein irakasle egon daiteke.
3. Ikaslearen tutoreak gertatu denaren gaineko informazioa ahalik eta lasterren jaso beharra dauka. **Tutoreak**, ikaslearen arduraduna izanda, neurri zuzentzailea betearazteko ardura hartu beharra dauka. Tutoreari zuzendaritzan jarritako neurri zuzentzailea bete egingo dela ziurtatzea dagokio.
4. Ikasleak ekarri beharreko eskutitzak (zitari buruzkoa, jarritako neurri zuzentzaileari buruzkoa...), zuzendaritzan entregatu behar ditu.
5. Mailako bileran neurria egoki nola beteko den antolatu erabaki daiteke: ordutegiz kanpoko lanak, patio ordurik gabe gelditzea...
6. Ikasleak neurria betetzen duenean, tutoreak zuzendariari jakinarazi egingo dio.
7. Inplikaturakoak ikasle bat baino gehiago direnean, zuzendariak **koordinatzaileari** jakinaraziko dio, eta honek ikasle horien tutoreei. Tutore bakoitzak bere ikaslearen ardura hartuko du neurri zuzentzailea aplikatzeko.
8. Ikasleak, neurria beteta daukanean, tutoreak koordinatzaileari jakinaraziko dio eta honek, zuzendariari.

KONTUAN HARTU:

- Erabiltzen den Neurri Zuzentzailea hezitzailea izateko baldintza batzuk bete behar ditu (ikus: jokabide desegokiak, neurriak eta prozedurak agertzen diren taulak- aurreko puntuan)
- Ikasleari ezarritako neurri zuzentzailearen jarraipena irakaslearen ardurapean geratzen da.

- Beti saiatu behar gara gatazkak era positiboan bideratzen. Hasiera batean, ikaslea haserreegi dagoelako ezin bada hitz egin, beste momentu bat bilatu berarekin hitz egiteko eta bion artean irtenbide bat bilatzeko, konpromiso batera iristeko.
- Hezitzaileak garen heinean, portaera desegokia **aukera bat** da ikasleak hezteko; **baliabide eta balore pertsonalak lantzeko** bidea irekitzen digu egoera honek. Horregatik, gure helburuak hauek dira:
 - Portaera desegokiari buruzko **gogoeta** ikaslearengan sortu.
 - Egindakoa **onartzetik** elkarbizitza egokia **berreraikitze** bidea jarri.
 - **Konpentsatu**, ahal den neurrian, egindako kaltea.

Hori guztia lortzeko erabiltzen ditugun estrategiak honakoak dira:

⇒ **Hitz egin**, behin eta berriro, ikasle horiekin. Elkarrizketa horien helburuak honakoak dira:

- o ezagutu honelako portaeren arrazoiak/atzean legokeen arazoa
- o egindakoaren larritasuna eta beste pertsonengan dituen horren ondorioak ikasleari azaldu; institutuko elkarbizitzan, gelako lanean, ... honelako portaerak onartezinak direla ulertarazi
- o enpatia landu, beste ikasle/irakaslearen lekuan jarriz
- o egoerari irteera emateko ikaslearen proposamenak eta asmoak bideratu
- ⇒ **Idatzizko gogoetak** eskatzen zaizkie, eduki duten portaera azalduz eta horren inguruko balorapena eginez
- ⇒ **Eginiko kaltea konpondu** edo leuntzeko egin dezakeena eskatzen diogu kaltea sortu duen ikasleari:
 - o Kalte materiala izan bada, dagokien **ordainketa** eskatzen zaie apurketaren eragileei
 - o Institutuaren mesederako beste **lanak** (garbiketa, adibidez) eskatzen zaizkie, egindako kaltea konpentsatzeko
 - o Pertsona bat sufritu edo mindu bada, **azalpena eta barkamen eskaera** (idatziz zein ahoz) eskatzen zaio ekintza desegokiaren eragileari
- ⇒ **Gelako orduetatik kanpo** bidalitako lana betetzen **geratzea** (atsedenaldian ...). Portaeraren eta larritasunaren arabera, **Gelatik baztertzea** ordu batzuetan, aparteko gela batean bidalitako lana betez.
- ⇒ **Konpromisoak** erabiltzen ditugu, portaera eta jarduera zehatzak eskatzen dizkiegu, bete beharrekoak eta noizera ebaluatuko direnak. Prozedura hauek idatziz zein ahoz burutu ditzakegu.
- ⇒ Portaera bat zuzentzen denean edota **aurrerapausoak** ematen direnean onartu eta **baloratu** egiten ditugu ikasleak.

Diziplina zaintzeko ardura guztiona da:

- o **Hasteko, irakasleak** zuzendu eta bideratuko ditu eguneroko arazo(txo)ak eskola jarduera arruntean, betiko moduan.

- o Mailako bileretan komunean jarriko ditugu arazo hauek, tutoreek ere ikaslearen jarreraren berri izateko eta arazoak bideratzeko moduak adosteko.
- o Arazoak errepikatzen badira, **tutorearen parte hartzea** beharrezkoa izango da. Honek hitz egingo du ikasle eta gurasoekin konponbidea bilatzeko.
- o Kasua larria bada, **Zuzendariak** jasoko du, eta (tutore eta irakasleen laguntzarekin) beharrezko bideak eta neurriak hartuko ditu. Neurri horien betetzearen **jarraipena tutorearen ardura** izango da.

4.4. ELKARBIZITZA KUDEATZEKO PROZEDURAK

4.4.1. Prebentzio Neurriak

Gatazkak prebenitzeko honako neurriak hartuko dira:

⇒ Harrera Plana:

- Kurtso hasierako Harrera Jarduerak elkar ezagutzeko eta urteko elkarbizitza plana estamentu guztietan zabaltzeko:
 - Klaustroan irakasleekin.
 - Ikasleekin Tutoretza ordutegi bereziak antolatuz.
 - Gurasoekin mailaka bilerak egin
 - Langile ez irakasleekin bilera.
- Ikasturtean zehar etorri berrientzat (ikasle, guraso, irakasle, atezain ...) institutura egokitzen lagunduko dion informazioa emateko, kideak ezagutzeko eta taldean integratzeko.

⇒ Tutoretza

Urteko Planaren barruan sartuta dagoen Tutoretza Planean aurreikusita dago ikasleen garapen pertsonala eta besteekiko harremanak hobetzeko jarduerak: baloreen heziketa, autoestimua eta enpatiaren garapena, harremanetarako abileziak komunikazioa hobetzeko eta gatazkak ahalik eta hoberen bideratzen ikasten joateko.

⇒ Aniztasunaren Trataera: Tutoretza Konpartitua_Banakako arreta estuagoa eskaintzeko eta metodologian indarra jarriz modu desberdinetan:

- Indartze eta sakontze jarduerak unitate didaktikoetan kontuan izan
- Bi irakasle gela barruan:

- ⇒ Banakako laguntza eskaini ahal izateko
- ⇒ Jarduera praktikoetan, proiektuetan aholkulari, bitartekari lanak egiten joateko (taldeetan)
- ⇒ Indartze denborak antolatzekeo
- Berdinen arteko elkar-laguntza
- Jarduera tutorizatuen jarraipena
- Talde kooperatiboak irakasteko baliabide bezala erabili.
- Metodologia eta baliabide aktiboak erabili (IKT,...)

4.4.2. Irakasleen Jarrera

Ikastetxean ikasle-irakasle erlazioak zaintzea funtsezkoa da; egunero eta hasieratik egin behar garrantzitsuenetakoa dugu hau. Kurtzebarrin gure arteko giroari lehentasuna eman nahi diogu, ikasleekiko **harremanak hurbilak, konfiantzazkoak eta errespetuzkoak** izan daitezen. Horrela, eguneroko elkarbizitza egokiaz gain honakoa lortu nahi dugu:

- ⇒ Ikasleek **eredu argi eta koherentea** izatea irakaslearen jarreraren eta portaeran. Errespetua, hurbiltasuna, ardura, hitz hutsez ez dira irakasten, eguneroko dinamikan txertatuz baizik. Guk beti errespetua erakusteak izugarri errazten digu errespetuaren eskaria ikasleei egitea.
- ⇒ **Ikas-irakas prozesua** bultzatu, komunikazioa erreza eta konfiantzazkoa denean hobeto eta gehiago ikas-irakas baitaiteke, guztiontzako modu aberasgarri eta atseginago batean.
- ⇒ Edozein **gatazka** edota **arazo** sortzen denean, gure erlazio sarea kalitate onekoa bada, hartu beharreko bidea, arazoak eduki dezakeen garapena, askoz egokiagoak izango dira eta konponbide posibleetarako ate gehiago izango ditugu zabalik.

Denok gara desberdinak eta bakoitzak gauzak egiteko modu bat dauka; ezin da zehaztu nola bideratu behar dituen nor bere harremanak, guztion artean giro egokia lortzeko.

Baina, hala ere, irizpide orokor batzuk eman daitezke:

- **Ongi burutu egin beharra:** puntualitatea zainduz, lanaren planifikazio egokia eramanez, klaseak garaian bukatuta (ez lehenago) ...
- **Argi azalduz** ikasleei **zer** egin behar duten eta **nola**
- Agertu **beti prest laguntzeko** ikas-irakas prozesuan
- **Entzun ikasleei** eta **kontuan hartu** haien dudak, eskariak eta beharrak. Irakasleen egoera ulertzeko beren lekuan jartzen saiatu: hortik errazagoa izango zaigu gure eskariak eta ikasgaiaren beharrak ikasleei adieraztea
- Honen ildotik, **galdetu, eskatu iritzia**, gaiei eta ikas-irakas prozesuari buruz, bi aldeetako komunikazioa bermatzeko eta helburu komunak bideratzeko
- **Ez mehatxatu, ez iraindu, ez utzi barregarri** ikasleak
- Ikasle batek portaera desegokia duenean ere, **ohartarazi modu argiz** baina beti ere **errespetuz**, argi utziz zein den portaera desegokia eta horren eragina.

Ikasle batek gelan asko haserretzen gaituenean, jendaurreko eztabaida zuzen eta zakarrak ekidatuz.

- Ikasleen arteko **diferentziak errespetatu**, maila, erritmo, izaera desberdinak dituzte. Konparazioak gutxitan dira lagungarriak.
- Ikasleak **heziz doazen pertsonak** direla ongi barneratzen badugu, errazago ulertuko ditugu eta ikusiko dugu nola lagundu momentu bakoitzean.

Hala ere, ikasleren batek geure onetik ateratzen gaituenean hobe genuke **lasaitasunari** eustea, noski. Hemengo irizpideak egokiak izan daitezke ikasleren baten portaera desegokiaren aurrean:

- Gaiaren **garrantzia ondo neurtu** behar da, ez baitatoz beti bat arazoaren garrantzia eta eragina batetik eta gudan eragiten duen haserrea bestetik.
- Momentuan **garrasika** hasiz gero, **nekez** konpontzen dira gauzak eta bai, ordea, zeharo konplikatzen zenbaitetan.
- **Ez** da inola ere komeni ikasleekin ika-mika jardutea, eta are gutxiago beraiei modu **sarkastikoz** edo **iraingarriz** (barregarri uzteko asmoz) aritzea.
- Arazoa sortu duen ikasleari esan behar zaiona **berari esan**, ez publikoki, beti ere **errespetuz**.
- Klasea amaitutakoan, **ikaslearekin hitz egin** behar genuke arazoa konpontzeko, eta geroago tutoreari jakinarazi.
- **Ikasle kanporaketa** aparteko neurria da (ez ohikoa); orduan zuzendaritzara eraman ikaslea. Ez dezagun ikaslerik bakarrik zuzendaritzara bidali.
- Orduan, kasua aztertuta, dagozkion neurriak erabakiko dira, hartara ikasleek argi eta garbi jakin dezaten hasiera-hasieratik errespetu faltan eta, oro har, jokabide desegokiaren aurrean sistematikoki **arazoari heldu** eta erantzuna emango diogula.
- Ez dezagun problemen aurrean ez-ikusiarrena egin

Ikasle baten portaera desegokia denean **gure jarrera funtsezkoa da**: gure lekuan bagaude, arazoari heltzen eta errespetuz jokatzeko, asko dugu irabazia geroko. Ikasleengan **gogoeta kritikoa sortu** behar dugu beren portaeraz: zer nolako eragina duen gelan, ikaskide(ar)engan, irakasle(ar)engan; hau ez dugu lortuko ikasle horrek autoritate moralik onartzen ez badigu. Autoritate moral hori zaintzen dugu ikaslearekiko errespetuzko jokaera dugunean. Gainontzeko ikasleen aurrean, gainera, oso argi egon behar du nork duen portaera desegokia eta hori ez dute definituko gure hitzek, gure jarrera eta gure jardunak baizik. Bestalde, eskolako arazoaren konponbideak askoz errezagoak dira **helduok gure lana egoki betetzen** dugunean.

Ohiko jarrera hauek lagunduko digute:

- ⇒ **Zintzo jokatu** ikasleekin, hitz egin argi haiekin
- ⇒ Ez itxuraldatu errealitatea, ez manipulatu, **onartu egia**, haiek ere egitiak izan daitezten
- ⇒ Huts egiten dugunean, **eskatu barkamena**, haiek ere gauza bera egin dezaten

- ⇒ **Ez epaitu, ez suposatu** aurretik ikaslearen asmoak, kezkak, arazoak,..
- ⇒ **Arretaz entzun** ikasleei, hartu ikaslea heldua balitz bezala, bera horrela portatzea nahi baduzu

4.4.3. Elkarbizitza Batzarrak

Oso tresna baliotsua izatea espero dugu dinamika parte hartzaile eta zabala lortzeko. Ikasleek berea plazaratzeko esparru bat bertan dute eta irakasleokin edozein gaiaz hitz egiteko, modu antolatatu batean. Guztion adostasunean, ahal bada, erabakiak hartzen dira.

Ikasle eta irakasleek beren kezkak eta kekek eramaten dituzte bertara, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko. Gai asko jorratzen dira: ikasle-irakasle harremanak, proposamen zehatzak, egin beharreko konponketak edo garbiketak, ikasleen artean sortzen diren arazoak, ...

4.4.4. Bitartekaritza

Gure institutuan, ohiko arazoei irtenbidea emateko bitartekaritza bideratzeko modu desberdinak dauzkagu:

- Tutorea, lehen mailako bitartekaritza lanetan
- Elkarbizitza Batzordea, heltzen zaizkion arazoetan
- Zuzendaritzako kideak
- Beste bitartekariren bat ere egon daiteke egoerak eta baldintzek hala eskatuko balute (orientatzailea, irakaslea, ikaslea, gurasoa, ...)

Gure ohiko prozedura honakoa izan daiteke:

- ⇒ **Bakoitzari entzun:** nola sentitzen den eta zergatik; entzun, hitz egin, gauzak argitu eta askotan ere idatziz jartzea eskatu egiten zaio (objektibatu egiten da)
- ⇒ Gero, bigarren momentu batean **enpatia** lantzen da, galderen bidez, ... (bestearen ikuspuntuak ezagutarazi)
- ⇒ **Konponbiderako urratsak:**
 - Inplikaturakoei eskatzen zaie adierazteko (idatziz edo ahoz) zer egiteko prest dauden arazoa konpontzeko, zer proposa dezaketen beren aldetik (ez hainbeste zer eskatuko litzaiokeen beste aldeari)
 - Hortik bilatzen da adostasun-konpromisoa alde bion artean
 - Jarraipen moduak adosten dira eta jarraipena egiten da konpromisoen betetze maila bermatzeko

4.4.5. Familiekin konpromisoa

Gauzak hobeto doaz gurasoekin batera lan egitean.

1.- Komunikazioa zaindu eta indartu behar da:

- ⇒ Tutore eta gurasoen arteko harremana funtsezkoa da
- ⇒ Gurasoekin egiten den hasierako bilera ongi prestatu behar da

- ⇒ Egunerokoari buruzko informazioa eman eta elkarbanatu: telefonoa, bilerak,...
- ⇒ Irakasleek eta gurasoek elkarrekin askoz eraginkorragoak direla argi eduki

2.- Arazoak daudenean, gurasoekin kontatu, egoki bideratzeko:

- ⇒ Arazo larriak tutore eta zuzendaritzaren bidez eraman, familien arteko liskarrak ekidatuz
- ⇒ Informazio zuzena eta osoena eman gurasoei
- ⇒ Konponketarako laguntza eskaera zehatzak egin
- ⇒ Heziketa planteamendu komunitik abiatzen saiatu

4.4.6. Berdinen arteko Tratu Txarrei aurre egiteko Estrategiak

Estrategia nagusia **prebentzioa** da, eta honetan hauek dira gure helburuak:

- ⇒ **Barne diskurtsoa sortu** gure arteko erlazio eta errespetuaren inguruan, Bullying-aren atzean dauden jarrerak onartzen ez dituen
- ⇒ **Giroa zaindu** honelako erasoak ikasleek lekuz kanpo sentitzeko (Dokumentu honetan jasotzen diren prozedurak, patio zaintzak, arreta pasabideetan, Elkarbizitza Batzordeak ...)
- ⇒ **Prozedurak ezarri**, laster antzemateko eta guztion artean aurre egiteko (Elkarbizitza Batzordeak, tutoretza lanaren jarraipen hurbila, ...)

Hala ere, honelako kasu baten aurrean, **ezarritako protokoloa** jarraituko dugu (Hezkuntza sailak argitaratutakoa), prozedura **zehatz-mehatz** jarraituz, informazioa ongi gordez eta dagokion jarraipena eramanez.

5. ANTOLAKETA NEURRIAK

5.1. ELKARBIZITZA BEHATOKIA

5.1.1. FUNTZIOAK:

- ⇒ Elkarbizitzaren jarraipena eta ebaluazioa egin
- ⇒ Estamentu guztien parte hartze aktiboa bermatu
- ⇒ Prozesu eta harremanetako arlo guztietan, aukera-berdintasun eta tratamendua zaindu
- ⇒ Harreman positiboak sustatzen dituzten jarduerak proposatu

5.1.2. PARTAIDEAK

- ⇒ Zuzendaritzako bat

- ⇒ Orientatzailea
- ⇒ Irakasle bi
- ⇒ Guraso ordezkari bi
- ⇒ Ikasle ordezkari bi

5.1.3. FUNTZIONAMENDUA

- ⇒ Ikasleak: Gaiak ordezkarien artean landu eta ondorioak plazaratuko dituzte.
- ⇒ Gurasoak: Modu berean
- ⇒ Langile ez irakasleak: Modu berean
- ⇒ Irakasleak: Mailako bileretan gaiak aztertu eta ondorioak plazaratuko dituzte.
- ⇒ Kolektibo bakoitzaren ordezkariak behatokian elkartuko dira, komunean jarriko dituzte ateratako ondorioak eta erabakiak hartuko dituzte, komunitate osoari jakinaraziko direnak. Talde txikia izanda errazago funtzionatuko du: ordutegia, disponibilitatea, erabakiak hartzea ,...
- ⇒ Behatokiak berak zehaztuko ditu urteko helburuak/asmoak, baliabideak, egutegia ...
- ⇒ Egutegia: Gutxienez, 5 bilera:
 - Kurtso hasieran: helburuak eta urteko plana zehazteko
 - Hiruhilabetekoan behin: elkarbizitzaren jarraipena egiteko
 - Kurtso bukaeran: ebaluazioa eta memoria egiteko

5.2. ZUZENDARITZA BATZORDEA

5.2.1. PARTAIDEAK:

- ⇒ Zuzendaritzako kideak,
- ⇒ Mailetako irakasle koordinatzaileak,
- ⇒ Orientatzailea.

5.2.2. FUNTZIONAMENDUA:

- ⇒ Astean behin biltzen dira ikastetxeko funtzionamenduari buruz hitz egiteko, ekintzak koordinatzeko, elkarbizitzaren jarraipena egiteko, arazoak aztertu eta bideratzeko proposamenak egiteko ,....
- ⇒ Bileran garatutako gaiak maila bakoitzeko koordinatzaileek irakasleen mailako bileretan azalduko dituzte

5.3. IRAKASLEEN MAILAKO BILERAK

- ⇒ Astean behin, maila bakoitzean klasea ematen duten irakasleak, mailako irakasle koordinatzailea eta orientatzailea biltzen gara.
- ⇒ Zuzendaritza Batzordean jasotako informazioa zabaldu, ikasleen jarraipena egin taldeka zein banaka, elkarbizitzaren jarraipena, arazoak aztertu, tutoretzak prestatu, proposamenak eta irtenbideak adostu ,... egiten ditugu.

5.4. TUTORETZAK

- ⇒ Irakasle guztiak gara tutore eta ikasleen jarraipen pertsonala dagokigu.
- ⇒ Mailako irakasle bakoitzari ikasle gutxi batzuen banakako jarraipena dagokio: ikaslearekin zein bere gurasoekin harremana pertsonalagoa eta jarraipen estuagoa mantendu ahal izateko
- ⇒ Astean behin, talde osoarekin tutoretza saio bat egiten da. Gai desberdinak lantzen dira: informazioa zabaltzeko, arazoak aztertzeko eta erabakiak hartzeko, tutorearen gidarekin garapen pertsonala eta besteekiko harremana sendotzeko teknikak lantzeko, elkarbizitzaren jarraipena egiteko, ikaste prozesuaren jarraipena egiteko, ...
- ⇒ Gurasoekin: Kurtso hasieran harrera bilera eta urtean birritan mantentzen da kontaktua gutxienez.

5.5. ELKARBIZITZA BATZARRAK

5.5.1. PARTAIDEAK:

- ⇒ Ikasleen aldetik: Geletako ordezkariak
- ⇒ Irakasleen aldetik: Mailako koordinatzaileak
- ⇒ Orientatzailea (Koordinatzaileekin batera Zuzendaritza Batzordeko kidea ere bada)

5.5.2. FUNTZIONAMENDUA:

- ⇒ Tresna baliotsua da eguneroko dinamika parte-hartzaile eta zabala lortzeko.
- ⇒ Ikasle eta irakasleen kezka eta kezka bideratzeko modu antolatua da. Erabakiak, ahal bada, guztion adostasunean hartzen dira. Gai desberdinak jorratzen dira: Ikasle-irakasleen arteko harremanak, proposamen zehatzak, egin beharreko konponketak edo garbiketak, ikasleen artean sortzen diren arazoak ,...
- ⇒ Maila bakoitzeko Batzorde bat eratu dugu eraginkorrakoak izateko, hala ere, gaiaren arabera batzar orokorra ere egin daiteke. Bileren maiztasuna: Gutxienez, hiruhilabetekoan behin. Komenigarriena, hilean behin.
- ⇒ Geletako ordezkariak gainontzeko ikasleen kezka jasotzen dituzte eta gero Elkarbizitza Batzordearen bileretan **hitz egin eta erabaki** denari buruzko informazioa gelara eramaten dute. Ikasle guztiek dute Elkarbizitza Batzordearen bileren berri.
- ⇒ Irakasleen koordinatzaileak eta orientatzailea irakasleen mailako bileretan irakasleen kezka jasotzen dituzte eta gero Elkarbizitza batzordean hitz egin eta erabaki dena mailako bilerara eta Zuzendaritza batzordean zabaltzen da, irakasle guztiek izateko Elkarbizitza Batzordearen berri, eta hartzen diren erabakiak era koordinatuan burutu ahal izateko.

6. FORMAKUNTZA JARDUERAK

Dokumentu honetan islatzen diren asmo eta mekanismoak arrakasta izateko komunitate osoko partaideen konpromisoa behar da. Plana irekia da eta urtez urte ikastetxeko beharretara egokitzen joan beharko da, eta gauzatu ahal izateko partaideen formakuntza kontuan izan beharko da. Formakuntza - behar anitz egon daitezke eta kolektibo bakoitza bere egoeraren diagnostikoa egin ondoren urtero erabaki beharko du zeri eman lehentasuna.

- ⇒ **Irakasleak:** Gelako aniztasunari egoki erantzuteko metodologia, programazioa adostu...IPK osatzeko beharra. Heziketa emozionalaren beharra, Komunikazio asertiboan trebatzeko beharra...
- ⇒ **Ikasleak:** Ordezkariek bitartekaritzan trebatu beharra...
- ⇒ **Gurasoak:** Komunikazio asertiboa, limiteak,...
- ⇒ **Langile ez irakasleak:** Komunikazio asertiboan trebatzeko beharra, ...

7. EBALUAZIOA

7.1. ELKARBIZITZAREN ETENGABEKO IKERKETA EGIN ETA ONDORIOAK HELARAZTEKO PROZEDURA

- ⇒ Elkarbizitzaren etengabeko ikerketaren arduraduna BEHATOKIA izango da.
- ⇒ Elkarbizitzaren inguruan egiten diren bileren aktak jasoko ditu
- ⇒ Hiruhilabetekoka, elkarbizitza batzordeetan adostutako erabakiak aurrera atera diren ziurtatuko du, partaideen satisfazio maila baloratuko du, kexak eta iradokizunak kontuan hartuko ditu (Elkarbizitza BUZOIA) eta ondorioak helaraziko ditu hurrengo hiruhilabetekoan egingo dena hobetzeko asmoz.
- ⇒ Ikasturte amaieran memoria osatuko du eta bertan adieraziko da helburuen betetze maila eta datorren urterako hobetze-proposamenak.



KURTZEBARRI BHI

:: Herriko plaza. 1 :: 30 postakutxa :: Tel.-Faxa: (943) 79 57 40 :: 20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
:: www.goieskola.net/kurtzebarribhi :: 012945aa@hezkuntza.net

